

BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILA

2040

EBAZPENA, 2026ko maiatzaren 8koa, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Hiri Agenda Saileko Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturaren zuzendariarena, zeinaren bidez behin betiko onesten baita «Basauriko J-Azbarren eremuko 34.2 EU exekuzio-unitatea» desjabetzeak ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrenda, eta hori betearazteko desjabetze-espedientea hasten baita.

Gaurko egunez, zuzendari honek jarraian argitaratzen den ebazpen hau hartu du:

AURREKARIAK

Lehenengoa.— Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturaren zuzendariaren 2025eko abenduaren 1eko Ebazpenaren bidez, ondasunen eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzeko epealdia ireki zen, «Basauriko J-Azbarren eremuko 34.2 EU exekuzio-unitatea» desjabetzeak ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatzeko beharraren deklarazioa egiteko.

Bigarrena.— Zerrenda jendaurrean jartzeko epealdi horretan, alegazioak aurkeztu zituzten Basauriko Udalak, Miren Iñake Hormaeche Fanok, Imanol Hormaeche Fanok eta Juan Anastasio Mardaraz Arriagak.

Hauxe eskatu zuten:

– Basauriko Udalak: 18., 27. eta 28. finketan duen partaidetzaren ehunekoa jasota gera dadila, eta desjabetze-prozeduraren izendapena zuzentzeko xedapen-zatian.

– Gainerako alegazio-egileek: 28. finkaren jabe gisa sartzeko.

Alegazio guztiak onartu dira eta adierazitako epean eta moduan erantzun dira; beraz, aldatu egin da ondasunen eta eskubideen zerrenda.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.— Legebiltzarraren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen (Lurzorua eta Hirigintza) 176. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, hirigintzako planak onartu baino lehen obrak onura publikokotzat jo behar dira eta, horrez gain, ukituta dauden lurak eta gainerako ondasunak eta eskubideak okupatu behar dira, horien jabetza kentzeko edo haietan zortasunak ezartzeko.

Bigarrena.— Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 20. artikulua eta lege horren Erregelamenduko dagozkionek ezartzen dutenez, jendaurrean egondako epean aurkeztutakoek egindako alegazioak ikusi eta aztertu ondoren emango da okupatzeko beharrari buruzko ebazpena, eta, ebazpenean zehaztuko dira desjabetzeak ukitutako ondasunak eta eskubideak.

Hirugarrena.— Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 21. artikulua ezartzen du okupatzeko beharrari buruzko erabakiarekin hasten dela desjabetze-espedientea.

Aipatutako lege-manuak eta horiekin bat etorri eta erabilgarri diren gainerakoak ikusita, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.— Interesdunek aurkeztutako alegazioak onartzea, aurrekarietako bigarren apartatuan adierazitako arrazoiengatik.

Bigarrena.— «Basauriko J Azbarren eremuko 34.2 EU exekuzio-unitatea» desjabetzeak ukitutako ondasunen eta eskubideen banakako zerrenda zehatza behin betiko onestea. Ondasun eta eskubide horiek eranskinean daude jasota.

Hirugarrena.— Behin betiko onetsitako zerrendan azaltzen diren ondasunak eta eskubideak okupatu egin behar direla adieraztea eta nahitaezko desjabetze-espedientea hastea «Basauriko J Azbarren eremuko 34.2 EU exekuzio-unitatea» desjabetzeak ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatzeko.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta haren aurka gorako errekurtsua jar dakioko Etxebizitzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 8a.

Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturaren zuzendaria,
PABLO GARCIA ASTRAIN.

ERANSKINA

Proiektua: Basauriko J-Azbarren eremuko 2. EU nahitaez desjabetzeko proiektua						
Lurzatiaren zenbakia	Titularraren izena	Okupatzailea/Jarduera	Azalera	Katastroko datuak		Ukitutako ondasunaren aprobetxamendua eta katastroko izaera
				Lurzatiaren kokapena	Zenbaki finkoa	
11	Euskal Autonomia Erkidegoa.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 74,46 m ² ko lurzatia.	015-1004-01025	B0303424F	Hiri-ondasuna, orubeak
12	Harri Iparra, SAU.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 419,44 m ² ko lurzatia.	015-1004-01020	B0303419V	Hiri-ondasuna, orubeak
13	Harri Iparra, SAU.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 1.582,25 m ² ko lurzatia.	015-1004-01019	B0303430U	Hiri-ondasuna, orubeak
14	Harri Iparra, SAU.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 1.309,93 m ² ko lurzatia.	015-1004-01018	B0303429W	Hiri-ondasuna, orubeak
15	Manuel Hormaeche Fano. María Ignacia Hormaeche Fano. María Carmen Mardaraz Arriaga. María Rosario Mardaraz Arriaga. Juan Anastasio Mardaraz Arriaga. María Begoña Mardaraz Arriaga.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 88,78 m ² ko lurzatia.	015-1004-01034	B0404372L	Hiri-ondasuna, orubeak
	Euskal Trenbide Sarea.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 163,19 m ² ko lurzatia.	015-1004-01023	B0303431F	Hiri-ondasuna, orubeak
17	Manuel Hormaeche Fano. María Ignacia Hormaeche Fano. María Carmen Mardaraz Arriaga. María Rosario Mardaraz Arriaga. Juan Anastasio Mardaraz Arriaga. María Begoña Mardaraz Arriaga.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 91,68 m ² ko lurzatia.	015-1004-01032	B0404370S	Hiri-ondasuna, orubeak
	Harri Iparra SAU. Basauriko Udala.	Ez Ez	Azbarren auzoan dagoen 585,90 m ² ko lurzatia.	015-1004-01001	B1509290D	Hiri-ondasuna, orubeak
19	Manuel Hormaeche Fano. María Ignacia Hormaeche Fano. María Carmen Mardaraz Arriaga. María Rosario Mardaraz Arriaga. Juan Anastasio Mardaraz Arriaga. María Begoña Mardaraz Arriaga.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 2.205,01 m ² ko lurzatia.	015-1004-01008	B0202801J	Hiri-ondasuna, orubeak
	Basauriko Udala.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 73,97 m ² ko lurzatia.	015-1004-01011	B1509292T	Hiri-ondasuna, orubeak

Proiektua: Basauriko J-Azbarren eremuko 2. EU nahitaez desjabetzeko proiektua							
Lurzatiaren zenbakia	Titularren izena	Okupatzailea/Jarduera	Azalera	Katastroko datuak		Ukitutako ondasunaren aprobetxamendua eta katastroko izaera	
				Desjabetzea	Lurzatiaren kokapena		Zenbaki finkoa
21	Basauriko Udala.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 76,07 m ² ko lurzatia.	015-1004-01012	B1509291L	Hiri-ondasuna, orubeak	
22	Basauriko Udala.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 70,52 m ² ko lurzatia.	015-1004-01013	U0038955N, U008956V eta N9450915B N9450917R.	Hiri-ondasuna, orubeak	
23	Pilar Cortes. Emilio Garcia.	Bai	Azbarren auzoko 29. zenbakian dagoen etxebizitza.	015-1004-01014	U0038955N, U0038956V N9450915B	Hiri-ondasuna, Azbarrengo 29. zenbakiko beheko solairuan dagoen etxebizitza	
	Basauriko Udala.	Ez	Azbarren auzoko 31. zenbakian dagoen etxebizitza.		N9450917R	Hiri-ondasuna, Azbarrengo 31. zenbakiko goiko solairuan dagoen etxebizitza	
24	Basauriko Udala.	Ez	Azbarren auzoko 25. zenbakian dagoen etxebizitza.	015-1004-01015	U4303855L	Hiri-ondasuna, 25. zenbakiko beheko solairuan dagoen etxebizitza	
	Rosario Gabarri. Emilio Garcia.	Bai	Azbarren auzoko 27. zenbakian dagoen etxebizitza.		U0038950T	Hiri-ondasuna, 27. zenbakiko goiko solairuan dagoen etxebizitza	
25	Basauriko Udala.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 70,59 m ² ko lurzatia.	015-1004-01016	N9434571A, N9434572Y N9434573Q, N9434574B	Hiri-ondasuna, orubeak	
26	Basauriko Udala.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 419,46 m ² ko lurzatia.	015-1004-01017	B1409274J	Hiri-ondasuna, orubeak	
27	Basauriko Udala.	Ez	Azbarren auzoan dagoen	015-1004-01033	B0404371D	Hiri-ondasuna, orubeak	

Proiektua: Basauriko J-Azbarren eremuko 2. EU nahiaiez desjabetzeko proiektua						
Lurzatiaren zenbakia	Titularraren izena	Okupatzailea/Jarduera	Azalera Desjabetzea	Katastroko datuak		Ukitutako ondasunaren aprobetxamendua eta katastroko izaera
				Lurzatiaren kokapena	Zenbaki finkoa	
28	Manuel Hormaeche Fano. María Ignacia Hormaeche Fano. María Carmen Mardaraz Arriaga. María Rosario Mardaraz Arriaga. Juan Anastasio Mardaraz Arriaga. María Begoña Mardaraz Arriaga. Pablo Cerro. Purificación Cano.	Ez	138,14 m ² ko lurzatia.	015-1004-01007	N9434563P	Hiri-ondasuna, orubeak
	Basauriko Udala. Manuel Hormaeche Fano. María Ignacia Hormaeche Fano. María Alonso Arzuaga. Jesus Uriguen Alonso. María Begoña Uriguen Alonso. María Teresa Uriguen Alonso. Nieves Uriguen Alonso. Juan Anastasio Mardaraz Arriaga. María Carmen Mardaraz Arriaga. María Rosario Mardaraz Arriaga.					
29	Basauriko Udala.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 77,23 m ² ko lurzatia.	015-1004-01005	B0404039Q	Hiri-ondasuna, orubeak
30	Basauriko Udala.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 70,02 m ² ko lurzatia.	015-1004-01006	B0404040X	Hiri-ondasuna, orubeak
31	Basauriko Udala.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 77,61 m ² ko lurzatia.	015-1004-01003	B1409277K	Hiri-ondasuna, orubeak
32	Basauriko Udala.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 77,62 m ² ko lurzatia.	015-1004-01004	B1409278S	Hiri-ondasuna, orubeak
33	Basauriko Udala.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 80,46 m ² ko lurzatia.	015-1004-01002	B1409276C	Hiri-ondasuna, orubeak
34	Basauriko Udala.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 26,71 m ² ko lurzatia.	015-1004-01031	B0404369U	Hiri-ondasuna, orubeak
35	Euskal Autonomia Erkidegoa.	Ez	Azbarren auzoan dagoen 2.399,07 m ² ko lurzatia.			Bidea, jabari publikoa